eman ta zabal zazu

Universidad del País Vasco
Euskal Herriko Unibertsitatea

GENERO-IKUSPUNTUA OSASUNEAN

Egilea

ELENA DIAZ EREÑO

EUSKARAREN ETA ETENGABEKO PRESTAKUNTZAREN ARLOKO ERREKTOREORDETZAREN SARE ARGITALPENA

Argitalpen honek UPV/EHUko Euskararen eta Etengabeko Prestakuntzaren arloko Errektoreordetzaren laguntza izan du

ISSN 2603-8900

II. MODULUA

BERDINTASUN-POLITIKAK

6. gaia.

Osasuna, gorputza eta sexualitatea

***Azpigaia*. Genero-ikuspuntua osasunean**

***Irakaslea*. Elena Diaz Ereño**

Aurkibidea

Laburpena 3
1. Sexua eta generoa osasun-zientzietan 4
2. Nola eragiten dute sexuak eta generoak osasunean? (OME)..... 6
2.1. Osasunaren gizarte-determinatzaileak 7
2.2 Osasunean eragina 7
3. Osasunaren arloan generoaren azterketa 8
3.1 Zein dira generoaren analisiaren gakoak?..... 9
3.2 Zergatik da garrantzitsua generoaren azterketa?..... 9
3.3 Zer adierazten du datuak sexuka bereizita aurkezteak?..... 9
4. Genero-azterketa osasun-arazo batean aplikatu 10
4.1 Gainpisua/Obesitatea genero-ikuspuntutik aztertzeko matrizea aplikatzen ... 13
4.1.1 Gainpisuaren/Obesitatearen prebalentzia populazio helduarengan 14
4.1.2 Gainpisua eta obsesitatea klinikoki definitzen..... 15
4.1.3 Osasunerako arriskuak eta zaurgarritasuna 17
4.1.4 Osasun-zerbitzu eta -baliabideetara iristeko eta erabiltzeko gaitasuna... 22
4.1.5 Osasun-zerbitzu eta -baliabideetara iristeko eta erabiltzeko gaitasuna ... 24
5. Genero-ikuspuntua osasunaren ikerketan gehitu: Bilbon egin zen *Osasun-ikerketa genero-ikuspegiarekin* mahai-inguruaren transkripzioa (2013ko azaroa) 25
5.1 Lan-osasunaren epidemiologian gehitu. Lucía Artazcoz Lazcano..... 27
5.2 Zainketa informala ikerketan gehitu. María del Mar García Calvente..... 29
5.3 Genero-alborapena osasun-laguntzan. Carme Valls Llobet..... 34
6. Genero-ikuspuntua osasunaren irakaskuntzan txertatu..... 37
7. Baliabide bibliografikoak..... 40

Laburpena

Medikuntzaren arloan, *sexu* terminoa erabili ohi da «subjektuak» gizonezkoen eta emakumezkoen artean bereizteko, batez ere errealitate anatomiko eta fisiologiko diferentzialaren miaketaren ostean. Gehienetan, *sexu* eta *genero* terminoak bereizketarik gabe erabiltzen dira, eta ohikoa da gizabanakoen datuak, klinikoak eta zientifikoak, genero-azterketa sexuka banandutako datuen aurkezpenaren sinplifikazio bihurtzea. Horren zergatia izan daiteke, neurri batean, generoaren eta osasunaren arteko erlazioaren kontzeptualizazioa oro har ezezaguna izatea. Erreferentzia-corpusak ez du parte hartzerik medikuntzako irakaskuntza-curriculumean, gradu osteko formazioan ere ez, eta ohiko praktika klinikoan ere ez.

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) horrela deskribatzen du *genero* terminoa: emakumezkoen eta gizonezkoen ezaugarriak, gizarteak definituak: adibidez, esleitutako rolak, arauak eta haien arteko erlazioak. Kulturaren eta denboraren arabera aldatzen dela adierazten du. Diru-sarrerak, hezkuntzak, adinak, etnia-jatorriak, sexu-orientazioak eta bizilekuak, adibidez, eragina dute osasunean. Faktore guztiak osasunaren determinatzaileak dira, eta osasun onaz gozatzeko edo hura galtzeko oinarrizko faktore ere bai.

Generoaren analisia tresna gakoa da osasun-politiketan eta osasun-programetan genero-ikuspuntua txertatzeko; baita sortutako efektu bereizgarrien jarraipenerako eta ebaluaziorako ere (OME). Analisiak ulertarazten digu emakumezkoek, gizonezkoek eta identitate ez-binarioa dutenek nolako diferentziak dituzten gaixotzean; arrisku-faktoreen azterketaren bidez, bai eta larritasunaren eta agertzeko maiztasunaren azterketaren bidez ere. Azkenik, kulturak, gizarteak zein osasun-sistemak diferentzia horiei ematen dieten erantzunaren azterketaren bidez ere bai. Genero-ikuspuntua osasun-ikerketan txertaturik, diseinuaren, metodologiaren, emaitzen interpretazio eta difusioaren zeihartasunak nabarmenduko ditu. Batez ere, okerreko ikerkuntzaren difusioa, praktika klinikoan errealitate biribil eta eztabaidaezin bezala aplikatutakoa, eta gaixotze diferentzialaren azterketaz jakinarazia.

Material didaktiko honen prestakuntzak nire ezjakintasunaren kontzientzia handiagotu du, eta ikasitakoaren zeihartasunak hobeto identifikatu; horrek eragin dezake atal desberdinei emandako dimentsioan. Ekarpenak egin ditzazuen animatzen zaituztet, ikasgaia hobetzeko. Aberasgarria izango da denontzat. Aurrera!

1. Sexua eta generoa osasun-zientzietan

Medikuntzan, indibiduoen sexua aipatzean genetikoki ezarritako errealitate anatomikoaz zein fisiologikoaz hitz egiten dugu, eta horrela bereizten dugu gizonezkoak edo emakumezkoak diren.

Errealitate hori konplexuago bihurtzen zaigu sexu-ezaugarri anatomikoak estuki ez datozenean bat sexu batekin edo bestearekin, esklusiboki; bietarakoa izan daiteke, edo «subjektuak» desadostasuna adieraz dezake jaiotzaz egokitutako sexuarekin. Berariaz *subjektu* hitza erabiltzen dut, osasun-zientzietan *pertsona* baino askoz gehiago erabiltzen delako.

Genero terminoaren esangura ulertzen asko kostatzen ari da, medikuntza klinikoan, esperimentalean zein irakaskuntzarenean, bai eta osasun-parametroekin, emaitzekin edo ezagutzaren transmisioarekin izan dezakeen erlazioa ere. Beraz, ohikoa da bi terminoen erabilera bereizgabea eta sinplifikatua, generoaren alderdi diferentziala sexutan banatutako datuak aurkeztera mugatzen baita (analisi kualitatiborik gabe).

Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) horrela adierazten digu 403. ohar deskriptiboan (medikuei barne): «generoak osasun-emaitzetan eragin dezake, bai eta osasunaren lorpenean eta ongizate mental, fisiko eta sozialaren lorpenean ere». Gainera, terminoak zeri egiten dion erreferentzia azaltzen du: gizarteak definituriko emakumezkoen eta gizonezkoen ezaugarriak, adibidez, esleitutako rolak, arauak eta haien arteko erlazioak. Are gehiago, kulturaren eta denboraren arabera aldatzen dela adierazten du. Halaber, garrantzitsutzat jotzen du gizonezkoen eta emakumezkoen sexu-kategoria bitarrean egokitzen ez diren identitateak (edo sexu-identitateak?) onartzea. «Arauek, erlazioek eta generoari esleitutako rolek ere eragiten dute pertsona transexualen edo intersexualen osasun-emaitzetan».

2015-16 ikasturtean, Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko «Emakumeak medikuntzan» izeneko Berdintasunerako Foroak mahai-inguru[1] bat antolatu zuen; Elena Aldasoro

[1] Mahai-ingurua: *¿Es perjudicial la medicina para las mujeres?*. Elena Aldasoro doktoreak emandakoa, Eusko Jaularitzako Osasun Publikorako Zerbitzutik, *Emakumeak Medikuntzan* izeneko Foroak antolatuta, Medikuntza eta Erizaintza Fakultateko Berdintasun Batzordetik (UPV/EHU).

Unamuno doktorea ekarri zuten hizlari. Ikerkuntzan eta medikuntza asistentzialean aurki daitezkeen genero-zeihartasunei buruzko gaia jorratu zuen.. Mahai-ingurua bukatzean, nire lankide batek —ikerkuntzan zein irakaskuntzan esperientzia handiko emakumea bera— onartu zuen hitzaldiari esker ulertu zuela, behingoz, sexuaren eta generoaren arteko desberdintasuna.

Terminoen erabilerarekin jarraituz, María del Mar García Calventek eta laguntzaileek (2010) aipatzen dituzten erabilera desegokiak biltzen dizkizuet lauki honetan:

- Sexua generoaren ordez erabiltzea.
- Emakumeak generoaren ordez baliatzea.
- Feminismoa *genero* terminoarekin ordezkatzea.
- Hierarkia (desberdina) osagarriarekin ordezkatzea.

Eta haien gomendioak: ez hitz egin bi generoz, emakumezkoenaz eta gizonezkoenaz, bi sexu biologikorekin lotutako bi genero bezala, horrek eramaten baikaitu generoa gizonezkoen eta emakumezkoen bizitzan oinarritzera, bananduta, bakoitza bere aldetik; eta, modu horretan, baztertuta gelditzen baitira erlazionatzeko modu ez-heterosexualak .

Ildo horretatik, Mª Pilar Sánchez López (2016)[2] autoreak honela idazten du «Enfoque de género aplicado a la salud» izenburua duen artikuluan: «Lo mismo que en el caso del sexo, el género es un concepto multidimensional que se transforma en la práctica en un concepto bipolar (masculino vs. femenino). Pero esto no refleja la amplia variedad de experiencias, de identidades y de comportamientos que constituyen el género. Los seros humanos sienten y expresan su género a lo largo de un continuo de características y comportamientos, *no mediante categorías excluyentes*». *Transgenero* hitza sartzen du sexu biologikotik bereizten diren identitate edo adierazpenak izendatzeko. Zehazki, hitzarekin barneratzen ditu «una variedad de individuos, conductas y grupos que suponen tendencias que se diferencian de las identidades de género binarias (hombres o mujer) y del rol que tradicionalmente tienen en la sociedad».[3]

[2] HYGEIA sarearen zuzendaria.
[3] Trasngenderismo gaiaz gehiago jakiteko Nicholas M. Teich-ren liburua gomendatzen du: *Transgender 101: A Simple Guide to a Complex Issue* Columbia University Press. *2012*. http://www.jstor.org/stable/10.7312/teic15712

Jakin-minez, Interneten LGTBI kolektiboak horretaz argitaratu duena bilatu dut. Material hau gaztelaniaz prestatu nuenetik euskaratu dudan arte ikaragarri ugaritu da informazioa (sortu eta hedatu). Momentu hartan, kolektiboak beren egoera sexuala sozialki normalizatzeko asmoz antolatu zituen jardunaldietatik triptiko bat hartu nuen, eta horrekin kontzeptu-mapa osatu. Proposamena konplexua bada ere, gero eta ohikoago bihurtzen ari da (normalizatzen).

Fororako proposatutako jarduera (1): kontzeptu-mapan estekatutako triptikoan, errepara iezaiozue *esquema de la diversidad sexual humana* taulari, eta foroan eztabaidatuko ditugu gauza interesgarrienak, kontraesankorrak eta abar (gehiago jakiteko, http://www.felgtb.org/).
https://www.gehitu.org/nortzuk-gara/ ; https://www.mundubat.org/tag/lgbtiq/

Gure lankide Margaret Bullenek eta Jone Hernándezek prestaturiko materialeko paragrafo hau berreskuratu nahi dut: «*Lo que emerge de forma poderosa es la multiplicidad de cuerpos y la pluralidad de maneras de vivir desde el cuerpo, que una vez más rompe los confines del dimorfismo sexual y la dicotomización del género*».

Honetaz, zerk arduratzen gaitu? Medikuntzak zenbateraino hartu duen aniztasuna naturaren akats bezala eta ez naturaren aniztasun bezala, genetikan aipatzen den *mosaiko* kontzeptua bezala? (Ana Zubiaga[4])
Gogoratzeko:

1. Sexua eta generoa ez dira elkarrekiko baztertzaileak, ez eta trukagarriak ere.
2. Termino biak bereiztea ez da lan erraza.
3. Kategoria biak (sexua eta generoa) beti izango dira bereizleak.
4. Biek eragiten dute osasun-emaitzetan.

2. Nola eragiten dute sexuak eta generoak osasunean? (OME)

Pertsona gehienei, gizonezko edo emakumezko jaiotzen badira ere (sexu biologikoa), gizonezkoentzat eta emakumezkoentzat egokiak diren portaerak irakasten zaizkie (genero-

[4] Ana Zubiaga: 'Stitching together our genetic patchworks'

arauak), bereziki beste kideekin nola erlazionatu behar duten, sexu berekoekin edo «kontrako» sexukoekin, bai etxean, bai komunitatean eta bai lanean (generoen arteko erlazioak), eta zer-nolako funtzioak edo ardurak onartu behar dituzten gizartean (genero-rolak).

Diru-sarrerak, hezkuntzak, adinak, etnia-jatorriak, sexu-orientazioak eta bizilekuak eragina dute osasunean. Faktore guztiak eta elkarrekiko interakzioa garrantzitsuak dira osasun onaz gozatzeko. Genero-desberdintasunarekin interakzioan jartzen direnean, eragile horiek bazterkeria eragin dezakete, eta baita osasun-arriskuak eta osasuneko emaitza onak izateko beharrezko baliabideen eskuragarritasun falta ere.

2.1 Osasunaren gizarte-determinatzaileak

Generoa osasunaren gizarte-determinatzaile da.

OMEk nola definitzen ditu osasunaren gizarte-determinatzaileak? Gizakien (pertsonak) jaiotzeko, hazteko, bizitzeko, lan egiteko eta zahartzeko baldintzak, osasun-sistema barne. Baldintza horiek boterearen, diruaren eta baliabideen sakabanaketaren emaitza dira, bai

mundu mailan, bai nazio mailan eta bai tokiko mailan ere, eta erabakitako politikaren menpe daude. Gizarte-determinatzaileek osasun-ekitate falta gehienak azaltzen dituzte; hau da, osasun-egoerari dagokionez behatutako desberdintasun bidegabe eta saihesgarriak, bai herrialde bakoitzaren barnean bai haien artean behatutakoak.

2.2 Osasunean eragina

Gizartearen arabera, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak, berez, ez dira arazo; bai, ordea, osasuna lortzeko beharrezko aukerak edo baldintzak sexuaren arabera mugatzen direnean, eta, beraz, osasunerako ondorio kaltegarriak ekar ditzaketen bazterkeria eta desberdintasunak sustatzen direnean.

Ezagutzen duzu egoera mugagarririk, esleitutako rol sozialak eragindakorik ?

Osasunaren arloan, zer dakar genero-berdintasunak? Emakumeek eta gizonek, bizitzan zehar, desberdintasunak kontuan izanda, baldintza eta aukera berdinak dituztela beren

eskubideen eraginkortasun osoa lortzeko eta osasuntsu izateko ahalmena izateko, osasun-garapenean parte hartuz eta emaitzetatik onurak jasoz.

Horrelakoa da gure gizartean? Beste gizarteetan? Zergatik ?

Pertsonek, generoari ezarritako roletara, erlazioetara eta arauetara egokitzen ez direnean, estigmatizazioa, bazterkeria edo giza bazterketa jasaten dituzte, guztiak ere osasunerako kaltegarriak diren esperientziak. Genero-arauek osasun hoberena lortzeko beharrezko baliabideen kontrolean eta eskuragarritasunean eragiten dute: baliabide ekonomikoak (diru-sarrerak, hipoteka); sozialak (sare sozialen laguntza); politikoak (lidergoa izateko, parte hartzeko eta antolatzeko gaitasuna); informaziokoak eta hezkuntzakoak (osasunaren oinarrizko kontzeptuak, ezagutza akademikoa); denborari lotutakoak (osasun-zerbitzurako sarbidea) eta barne-ezaugarriak (norberaren buruarengan konfiantza, autoestimua).

Arauek, rolek eta generoaren arloko erlazioek emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunak sortzen dituzte, honako arlo hauetan:

- Arrisku- eta zaurgarritasun-faktoreen eraginpean jartzea.
- Etxearen eremuan, nutrizioan, zainketan eta hezkuntzan egiten diren inbertsioak.
- Osasun-zerbitzuetara duten sarbidea eta erabilera.
- Osasun-arretako inguruneetan izandako esperientziak.
- Osasun txarraren gizarte-eraginak.

3. Osasunaren arloan generoaren azterketa

OMEk hartutako konpromisoa. 2007. urteko maiatzean, 60. Osasunaren Mundu Biltzarrak erabaki zuen OMEren jardueren artean (WHA60.25) txertatzea genero-ekintzak eta genero-azterketa; honako hauek:

- Generoaren arloko plangintza eta azterketarako gaitasuna sortzea.
- Erakunde-eginkizunetan generoaren gaia sartzea.
- Datuak desglosatzea eta generoari buruzko ikerkuntza egitea.
- Generoaren gaia txertatzearen kontuak nork eman behar dituen zehaztea.

Zer da generoaren analisia? Tresna gakoa da osasun-politiketan eta osasun-programetan genero-ikuspuntua txertatzeko, baita sortutako efektu bereizgarrien jarraipenerako eta ebaluaziorako ere.

3.1 Zein dira generoaren analisiaren gakoak?

1. Azterketarako «sexua» eta «generoa» unitate desberdinak direla aitortzen du.
2. Generoaren rolek eta arauek baliabideen kontrolean eta eskuragarritasunean eragiten dutela uste du.
3. Emakumeak eta gizonak ez dira berdinak bizitzaren arloetan, ez biologikoki ezta sozialki ere.
4. Prozesu sistematikoa osatzen du, eta epe luzerako konpromisoa behar du.
5. Beharrezkoa da politikak eta programa egokiak adierazteko.
6. Ikerkuntzan lortutako informazioan, emakume eta gizon talde askotarikoei eginiko kontsultan, jarraipenaren eta epidemiologia-behaketaren datuetan jasotako ebidentzietan oinarritzen da. Horretarako, bildutako datuek kuantitatiboak eta kualitatiboak izan behar dute, eta sexuka desglosatuta egon behar dute.
7. Iturburu-taldeen ordezkoek parte hartu behar dute prozesuan, bai eta gai horretako adituek eta bestelako sektore zein diziplinetakoek ere.

3.2 Zergatik da garrantzitsua generoaren azterketa?

- Honako alderdi hauek ulertzen laguntzen digulako: arrisku-faktoreen desberdintasunak, gaixotasunen eragina eta haien adierazpenak; larritasunean dauden desberdintasunak, gaixotasunen maiztasuna, eta arazo horien aurrean kulturak, gizarteak eta osasun-sistemak ematen dituen erantzunak.
- Desberdintasunak agerian uzten dituelako honako baliabide hauetarako sarbidean: osasun-arreta eta baliabideak, informazioa, garraioa, komunikazioa eta zerbitzuak, eta erabakiak hartzeko prozesua.
- Osasun-arretari egiten dizkioten ekarpen desberdinak onartzen dituelako: formala, informala eta etxeko doako zainketa.

3.3 Zer adierazten du datuak sexuka bereizita aurkezteak?

- ✓ Emakumeen, gizonen, nesken eta mutilen datuak bereiz bildu, aztertu eta aurkezten direla.
- ✓ Abiapuntua direla, baina, zenbakietatik aparte, pauso bat gehiago eman behar dela (harago joan beharra dago), eta kontuan hartu beste aldagai mota bat, garrantzizko informazioa aintzakotzat ez hartzea ekiditeko.

- ✓ Datuak baliagarriak dira gizonen eta emakumeen egoeraren arteko desberdintasunak eta berdintasunak irudikatzen dituztelako, eta azterketa edo ikerkuntza gehigarriak behar dituzten eremuak adierazten dituztelako; adibidez, elkarrizketa zehatzak eta iritzi-taldeko metodo kualitatiboak).
- ✓ Datuen gogoetak, sexuka soilik, albo batera uzten du garrantzizko informazioa; adibidez, talde etnikoa, adina eta egoera sozio-ekonomikoa gehitzen ditugunean, hobeto bidera daitezke programak, proiektuak eta politikak.

Ondorioa:

Sexuka banatutako datuek (kualitatiboak zein kuantitatiboak) programa zuzentzen zaien emakumeen eta gizonen egoerak hobeto ulertzen laguntzen dute; eta genero-desberdintasunak kontuan hartuko dituzten programen, proiektuen eta politiken plangintzan laguntzen dute.

Fororako proposatutako jarduera (2). Begira itzazue grafiko hauek; kontuan izan desberdintasun sozialek nola eragiten duten gizon eta emakumeen osasun-adierazleetan EEAn. Partekatu azpimarragarriena, zalantzagarriena, eta abar.

https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/encuesta_salud_graficos/es_escav13/adjuntos/Graficos_DeterminantesdelaSalud.pdf

4. Genero-azterketa osasun-arazo batean aplikatu

1. taulan erakusten da OMEko gidan (OPS/OMS gida) proposatzen den genero-azterketarako matrizea. Matrizeak sexuaren eta generoaren eraginak aztertzen laguntzen digu egoera edo osasun-arazo jakin batean, gizonezkoek eta emakumezkoek jasan ohi duten osasun-arazo jakin batean.

- Lerroka, azterketa zehatzagoa egiteko markoa ematen da; arriskuekin, zerbitzuetara sartzeko ahalmenarekin, osasunerako eraginekin eta emakumeen zein gizonen ongizatearekin erlazioa duten kontuak.
- Zutabeka, determinatzaile (eragile) biologikoekin, sozio-kulturalekin eta baliabideen kontrolarekin erlazionatutako galderak txertatzen dira.

Genero-azterketarako matrizeek laguntzen digute gizon, emakume edo pertsona ez-binarioen osasun-arazo batzuekin erlazionaturiko berdintasunak eta desberdintasunak aitortzen.

Nola batu dezakegu informazioa? Normalki, galderen bidez. Galderek informazioan oinarritutako ikuspuntua sustatzen dute. Informazio hori ikerketatik, behaketetatik, hausnarketetatik eta gizon-emakumeekin egindako lanetik atera daiteke. Beti ez dago erantzunik, baina galderak egitean genero-azterketak ikusarazten dituen desberdintasunak agertzen dira.

Azterketak testuinguruko ikuspuntuak islatu behar ditu; genero-ezaugarriak dinamikoak dira. Horrek esan nahi du genero-azterketa ez dela behin bakarrik egiten; aldika errepikatu behar da, komunitatean agertzen diren aldaketak, joerak eta ezaugarri epidemiologikoak ezagutzeko asmoz.

1. taula. Osasunaren gaian genero-azterketa egiteko matrizea (OPS/OMS)

	GENERO-AZTERKETA	
OSASUN-ARAZOA	Emakumeen eta gizonen osasunean nola eragiten dute **desberdintasun biologikoek** eta **fisiologikoek?**	Gizonen eta emakumeen osasunean nola eragiten dute **genero-rolek eta -arauek?**
1) Osasunerako arriskuak eta zaurgarritasuna.	Osasunerako arriskua izateak esan nahi du: - Aurkako emaitza izateko probabilitatea. - Aurkako emaitza txarra izateko probabilitatea. - Emaitza txarra izateko probabilitatea gehitzen duen faktorea izatea. - Osasun-arazoaren ondorioa izatea. - Aurkakotasuna edo mehatxua izatea. **Zaurgarritasuna:** pertsonei arrisku handiagoa jasanarazten dieten faktoreak.	
2) Osasun-baliabideak eta -zerbitzuak eskuratzeko eta erabiltzeko gaitasuna.	**Sarbidea**: norbanakoaren osasun-beharrak gogobetetze-mekanismoekin harremanetan ipintzeko gaitasuna. **Osasun-arretaren kalitatea**: zer gradutan osasun-zerbitzuek...: - gehitzen duten desiratutako osasun-emaitza lortzeko probabilitatea; gaurkotutako ezagutza profesionalekin osatutakoak diren. - kontuan izaten duten erabiltzaileen hautemandako kalitatea. <u>Aztertzeko faktoreak</u> - Osasun-zerbitzuekiko distantzia, garraioa, arreta-ordutegia, zerbitzuaren kostua, behar den denbora. - Familia-baimenaren beharra. - Erabilgarriak diren osasun-zerbitzuen ezagutza. - Terapia-aukerak komunikatzeko modua. - Arretaren kalitatearen pertzepzioa. - Arreta behar duten arazoen ezagutza propioa. - Arazoak duen larritasunaren pertzepzioa. - Osasun-zerbitzuarekin aurretik izandako esperientzia. - Eskuragarriak diren aukerak. - Osasun-arazo jakin batzuek duten estigma. - Ohiko jarduerekin duten interferentzia. - Kultura-ikuspegitik, ikuspuntu sentikor baten falta.	
3) Osasun-emaitzak eta osasun-arazoen ondorioak (adibidez, ekonomikoak, sozialak).	Pertsonarentzat eta haren familiarentzat, osasun-arazoaren zaman eta emaitzan eragina duten faktoreak honako hauek dira: - Diru-kostua. - Arazoaren iraupena. - Estigma.	

OPS: Organización Panamericana de la Salud

4.1. Gainpisua/Obesitatea genero-ikuspuntutik aztertzeko matrizea aplikatzen

Nire esperientzia klinikoaren zati handi bat arreta medikoan eta nutrizionalean zentratu da. Paziente gehienak emakumeak ziren, eta «argaltzea» zen kontsultan jasotzen nuen eskaerarik ohikoena. Horietako askok makina bat dieta probatu zituzten niregana etorri baino lehen, gehienak emaitza etsigarriekin; eta ez bakarrik dieta, baita bestelako terapiekin nahastuta ere (presoterapia, liposukzioa, zelulitisaren kontrako krema, bendaje hotz-beroak, fitoterapia diuretikoa, betegarria eta abar). Denak, nire ustez, eraginkortasun zalantzagarria dutenak, eta oso garestiak.

Paziente horietako asko lehenago osasun-zentrotik edo anbulatoriotik pasatuak ziren, inolako arrakastarik gabe. Dietaren monotonia, denborarik gabeko arreta medikoa eta tratamenduaren pertsonalizazio falta aipatzen zituzten *kanpoko* oztoporik garrantzitsuentzat.
Barneko oztopoen artean, berriz, autokontrol faltaren pertzepzioa, gogaitasuna, prozesuan zehar galdutako motibazioa eta lan- eta familia-bizitzarekin zein bizitza sozialarekin bateraezintasuna erakusten zituzten.
Zer gertatzen zitzaien? Pazienteen errua zen? Argaltzeko dietak baliagarriak al dira?

Foroan partekatzeko jarduera (3).
Zure inguru hurbilean, zenbat pertsona ezagutzen dituzu dieta egin dutenak eta saiakeran porrot egin dutenak? Generoaren aldetik, zer diferentzia behatu dituzu erantzun mota aztertzean?
Horietako zenbat daude «harrapatuta» beren arazoa betiko bideratuko duen dietaren bila? Zenbat, gorputz perfektu edo idealaren bila?
Horietako zenbatek izan dute beren osasun-arazoa bideratzeko diziplinarteko programa batean parte hartzeko aukera?
Pisuaren kontrola osasun-arazotzat ikusten da, edo itxura-kontu xume bat da?
Zein da dieta egitearen helburu nagusia?
Bideragarria da nagusi den eredu estetikoa?
Posible litzateke gorputz-aniztasunaren edertasunak orokortzea?

Nire ogibidean behatu eta jasan dudan gabeziarik handienetako bat izan da osasun nutrizionala sustatzeko programen falta, bai osasun-sare publikoan bai pribatuan.

Baliabide profesional nahikoak dituzten programak, espezializatuak, emakume gazte, heldu zein nagusiei zuzenduak (gizonentzat ere ez daude). Haurdunaldian eskaintzen den arretatik aparte, gutxi aurkitu ditut; ez da arreta askoz gehiago eskaini modu egituratuan, programatuta, era sistematikoan, nerabezarotik zahartzarora. Jateko portaera-arazoen kasuan ere, egoera larrian jartzen dituzte nerabeak zein haien familiak, beharrezko unitate espezializatuen gabezia daukate, osasun-sarean koordinatuta eta elkarteekin, heziketa-zentroekin zein gizarte-zerbitzuekin lankidetzan.

4.1.1 Gainpisuaren/obesitatearen (SP/OBS) prebalentzia populazio helduarengan

OMSren, SEEDOren eta SEENen zenbait dokumentu begiratuz, denak bat datoz: obesitatea gaixotasun kroniko multifaktorial bat da, soziosanitarioki eta ekonomikoki garrantzi handia duena. Herrialde garatuetako populazioaren ehuneko handi bati eragiten dio, adin, sexu eta baldintza sozial guztiak barne hartuz.

MSSSIk argitaratutako ondorengo grafikoan[5], 1987tik 2014ra 18 urtetik gorako populazio helduaren obesitatearen prebalentzia agertzen da, sexuaren arabera, baita aldi bereko prebalentzia ere obesitatea eta gainpisua kontuan hartuta.
Ikus daitekeenez, obesitatearen prebalentzia pertsona nagusiengan goranzko marra bat da azken 25 urteetan (ENSE 1987-2014). 1987tik 2014ra arte emakumeengan obesitatea %8tik %16,7ra pasatu da. Gizonen kasuan are gehiago, 1987an

%7 izatetik 2014. urtean %17,1 izatera. Sexuaren araberako ezberdintasunak oso nabariak dira gainpisuaren kasuan.
2014an obesitatearen eta gainpisuaren prebalentzia biak batera hartuta, Espainian bizi zen biztanleria helduarengan %52,7 zen, gizonengan handiagoa (60,7) emakumeengan baino (44,7). Zifrak berak adierazgarriak dira.

[5] ENSk eta EESk aurkeztutako estatistiketan, pisua eta altuera pertsonak aitortutakoak dira. Horrekin IMCa kalkulatzen da eta OMSren irizpideak aplikatzen dira.



Iturria: Ministerio de Sanidad, Servicios Sociales e Igualdad (MSSSI). Encuesta Europea de Salud en España" (EESE) 2014 (INE); Encuesta Nacional de Salud Española (ENSE) 2033-2011 (MSSSI/INE) Encuesta Nacional de Salud (ENS) 1987-2001 Instituto Nacional de Estadistica (INE) Eskuragarri link honetan: http://www.fundadeps.org/recursos/documentos/737/Tend_salud_30_indic.pdf

Obesitateari buruzko argitalpen gehienetan, gaixotasun hau genotipoaren (karga genetikoa) eta ingurumenaren arteko interakziotzat hartzen da. Agertzen denean, pareko beste gaixotasun batzuk jasateko arriskua areagotu egiten da (komorbilitatea), eta, horregatik, tabakoaren ondoren, gaixotasun goiztiar eta saihesteko moduko bigarren heriotza-kausa bihurtu da. Osasun publikoko arazo larri bat da.

Obesitatea duten pertsonek gizarte-estigmatizazioa eta diskriminazioa pairatu ohi dute, eta jasaten dutena ez da benetako gaixotasuntzat hartzen, alderantziz baizik: ahorakina kontrolatzeko ezgaitasun indibidualaren ondoriotzat hartzen da.

4.1.2 Gainpisua eta obesitatea klinikoki definitzen

Guía de práctica clínica para el manejo del sobrepeso y la obesidad en personas adultas (J.J Arrizabalaga et cols, 2003) delakoak termino klinikoetan definitzen du obesitatea,

gizabanakoa osasunerako arriskutsua den egoera batean jartzen duen gantz korporal gehiegi egotea. Gizonengan, beren gorputz-pisuaren %25etik gora jotzen da gantz gehiegi izatea (normala izanik %12 eta %20 artean), eta emakumeengan %33tik gora (normala izanik %20 eta %30 artekoa).

Gorputz-gantzaren ehunekoa kuantifikatzeko metodo zehatzak daude, baina kostu handikoak, eskura ez daudenak eguneroko praktika klinikoan. Horregatik, nazio arteko erakundeak eta obesitatea[6] ikertzen duten elkarte zientifikoek honako hauek gomendatzen dituzte: gorputz-neurrietatik eratorritako indizeak (pisua, altuera, gerriondoa eta aldakaren perimetroa, batik bat) eta gantz kantitatea eta gantz hori aldaketan eta sabelaldean nola banatzen den balioesteko adipositate-indizeak.

IMCa edo GMIa (Gorputz Masaren Indizea) da metodorik onartuena obesitate-maila sailkatzeko eta diagnostikatzeko, zatidura bat bezala definituta: pisua Kg-tan adierazita, zati altueraren karratua (metrotan neurtuta). Zenbait ikasketek GMIa eta gorputzeko gantzaren ehunekoaren arteko korrelazio egokia azaldu dituzte. Hala ere, indize honek zenbait muga adierazten ditu, gida berean adierazten denez:

a) Gorputz-gantzaren proportzioa gehiegi balioestea pertsona gihartsuengan (neurri honek ez dituelako ezberdintzen giharra eta gantza, ezta erretentzio hidrikoa ere).
b) Gorputzeko gihar-masa gutxiren gutxiespena, pertsona nagusien kasuetan adibidez.
c) Ez ditu populazioen arteko ezberdintasunak jasotzen.
d) Eta gauza oso garrantzitsu bat: ez ditu ezberdintzen sexua, adina, eta helduaroan bizi-zikloei lotuta gertatzen diren aldaketak.

Honako taula honetan OMEren irizpideak (1. taula) eta SEEDOrenak (2. taula) ikus ditzakezue, GMIaren araberako obesitatearen graduak definitzeko.

[6] OMS, International Obesity Task Force, Expert Panel of the Identification, Evaluation and treatment of Overweight and Obesity in Adults.

TABLA 1. Criterios de la OMS para definir la obesidad en grados según el índice de masa corporal (IMC)

	Valores límites del IMC (kg/m²)
Normopeso	18,5-24,9
Sobrepeso	25-29,9
Obesidad grado 1	30-34,9
Obesidad grado 2	35-39,9
Obesidad grado 3	≥ 40

TABLA 2. Criterios de la SEEDO para definir la obesidad en grados según el índice de masa corporal (IMC)

	Valores límites del IMC (kg/m²)
Peso insuficiente	< 18,5
Normopeso	18,5-24,9
Sobrepeso grado 1	25-26,9
Sobrepeso grado 2 (preobesidad)	27-29,9
Obesidad grado 1	30-34,9
Obesidad grado 2	35-39,9
Obesidad grado 3 (mórbida)	40-49,9
Obesidad grado 4 (extrema)	≥ 50

Beste datu bat: zenbait ikerlanek iradokitzen dutenez, obesitatearekin zerikusia duten osasun-arriskuek gantzaren banaketarekin zerikusia dute. 50eko hamarkadatik (Vague, J.J. Arrizabalaga et cols-ek aipatuta) zera deskribatu zuten: gorputzeko gehiegizko gantza sabelean metatzeak arrisku gehiago dakarrela gluteo-femoral aldean metatzeak baino (aldakak eta izterrak).

4 **Endocrinol Nutr 2003;50(Supl 4):1-38**

Horregatik, sabelaldeko perimetroa, gerrialdekoa eta aldakakoa neurtzea gomendatzen da, 3. taulako irizpideak aplikatzeko. Gaur egun, perimetro abdominala ere (zilbor aldekoa) kontuan hartzen da. Erreferentziazko balioak gizonengan eta emakumeengan hemen argi ezberdintzen direlako.

Populazio heldu osoarentzat erreferentziatzat ematen diren ezberdintasun anatomiko edo antropometrikoak nahikoak al dira? Zergatik ez daude kurba eguneratuak pisu pertzentilekin, altuerarekin, GMIarekin, larruazal-tolesdurekin, adin ezberdinetan, praktika kliniko arruntean erabiltzeko? Alastrué (1986)-ren ikerlana erabiltzen jarraitzen dugu.

TABLA 3. Datos antropométricos para la evaluación de la distribución de la grasa corporal

Medida	Límite superior de la normalidad	
	Varones	Mujeres
Índice cintura-cadera	1	0,90
Circunferencia de la cintura (cm)	102	88
Diámetro sagital (cm)	25	25

Baditugu Alicia S. Canda-k egindako taulak, populazio kirolgileari hartutako neurri antropometrikoekin. Baita Esperanza Valero Cabellorena ere (Instituto Nacional de Hiegiene y Seguridad en el Trabajo), eta beste bat Antonio Carmona Benjumearena.

4.1.3 Osasunerako arriskuak eta zaurgarritasuna (matrizearen arabera)

Osasunerako arriskuak

Medikuen balioespenek ondorioztatu dute gainpisuaren eta obesitatearen ondorioak gaixotasunetarako eta osasun-arazo askotarako arrisku-faktoreak direla; hala nola, hipertentsioa, hiperkolesterolemia, nagusien diabetesa, gaixotasun koronarioak, zenbait minbizi mota, eta beste hainbat gaixotasun kroniko. Gainpisua/obesitatea morbilitatea eta heriotza-kausa handiagotzearekin uztartzen da. Handiagotze horrek zerikusi argia dauka obesitate-graduarekin, eta nabarmenagoa da GMI altua duten banakoen kasuan. Gaixoek GMI 40 kg/m^2 baino handiagoa dutenean, arrisku erlatiboa 2,5eraino irits daiteke, pisu normala duten pertsonekin alderatuta.

Ikus ditzagun gida honek gainpisuarekin/obesitatearekin zerikusia duten osasun-aldaketei buruz ematen dituen datuak eta sexuen araberako prebalentzia:

- Endokrino-metabolikoak. Areagotu egiten ditu II motako Diabetes Mellitusa (DM), hiperlipoproteinemiak, bereziki sabelaldeko obesitatean, triglizeridoen gehitzea odolean, HDLa txikitzea, LDLa igotzea. Nahiz eta obesitatearen eta kolesterol totalaren eta LDLaren artean bateratze bat proposatu den, erlazio hori ez da tinkoa datuak sexuaren arabera banatuta analizatzen direnean. NHANES ikerlanak erakutsi zuenez, kolesterol altuaren prebalentzia GMIrekin batera igotzen zen gizonengan; emakumeengan, aldiz, hiperkolesterolemia altuaren prebalentzia GMIaren 25 eta 27n k/m2ren artean zegoen (gainpisua).
- Kardiobaskularrak. Arteria-hipertentsioa. Tentsio arteriala handituz doa OBS gradua handitzen den heinean; arriskua handiagoa da sabeleko OBSarekin. Obesitatearen kontrolak HTAren kasuak erdira jaitsiko ditu arraza zuriaren kasuan, eta %25ean arraza beltzaren kasuan. Kardiopatia iskemikoa, heriotza-arriskuarekin, hiru bider handiagoa da obesitatedun pertsonengan, pisu normala dutenengan baino. Arriskuaren zati handi bat arrisku erlazionatuen faktoreengatik azaltzen da (HTA, DM, hiperlipemiak). Kardiomiopatia eta bihotzeko gutxiegitasuna (IC): aditzera eman da ICaren arriskua gizonengan %5ean eta emakumeengan %7an igotzen dela. Obesitatedun pertsonek ICa izatearen arrisku bikoitza izango omen dute. Iktusaren arriskua, hilgarria ala ez, praktikan bikoitza da GMI >30 kg/m^2 denean, pisu normala dutenekin alderatuta.
- Hiperurizemia (azido urikoaren igoera eta ondoriozko hezueri-koadroak).
- Sindrome metabolikoa edo X sindromea: gantzaren banaketa zentrala, arestian aipatutako konplikazioengatik.

- Digestio-gaixotasunak. Behazun-litiasia (BL) izateko arriskua biziki areagotzen da GMI > 30 kg/m^2 denean. Kalkuluetan ageri da emakumeen BLa %1ekoa dela GMI > 30 kg/m^2 denean, eta, aldiz, %2 GMI > 45 kg/m^2 denean. Obesitatea ere arrisku-faktore bat da pankreatitis akutuan, eta erlazionatuta agertu da esteatosi hepatiko ez-alkoholikoan (gibel koipetsua delakoan) dauden konplikazioen arriskuekin ere.
- Arnasketa-nahasmenduak: hipo-aireztapen sindromearekin eta loaldiko apnearekin erlazionatzen da, are gehiago obesitate zentrala (sabelaldekoa) duten pertsonengan.
- Artrosia: obesitatedun pertsonengan areagotu egiten da, eta gaixotasun honi dagozkion gastuen zati handi bat suposatzen du.
- Minbizia. Obesitatedun gizonengan sarriago agertzen da prostata, ondestea eta kolona; emakumeengan bularrekoaren intzidentzia handiagoa da (menopausiaren ondoren bakarrik), endometrioa eta behazun-maskuria. Obesitatedun emakumeek bularreko eta zerbix minbiziaren prebentzio eta galbahetze-programetan gutxiago parte hartzen dutela pentsatzeko zantzuak daude.
- Alterazio psikosozialak. Pisua jaisteko eskaria egiten duten obesitatedun pertsonen % 20-30ak, gutxi gorabehera, depresio-nahasmendua eta bestelako alterazio psikologikoak azaltzen ditu. Gida honen arabera, «estatus ekonomikotik eta gaitasun-testetatik at probabilitate txikiagoa behatu da ikasketak osatzeko, diru-sartze gutxiago, pobrezia-indize handiagoa eta ezkontzeko probabilitate gutxiago». Obesitatea efektu negatiboekin uztartu da bizi-kalitatearen SF-36 delako testaren zortzi arlotan.
- Gainontzeko alterazio endokrinoak. Emakumeek nahasmendu menstrualen prebalentzia altua azaltzen dute; ziklo anobulatorioak, obulutegi polikistikoaren sindromea, ernalezintasuna... Hazkunde-hormonaren gutxitze nabariarekin ere lotzen da obesitatea.
- Bestelako komorbilitateak: nabaritzekoak dira beheko gorputz-adarretako zainen gutxiegitasuna (barizeak), gernu-inkontinentzia, hipertentsio endokraneal onbera, larruazalaren alterazioak (zelulitisa, larruazaleko ildoak, *acantosi nigricans*, hirtsutismoa, folikulitisa, *intertrigoa*) eta zailtasun obstetrikoak, toxemia, HTA, erditze *distozikoa* eta zesarea gehienak.

Horrez gain, obesitatearen graduarekin gehitzen dira zailtasun kirurgikoak eta postkirurgikoak, osatze-denbora (susperraldia) luzatuz. Eta arrazoi horregatik, zenbait medikuk gaixoari «kilo batzuk kentzea» gomendatzen diote, ebakuntza egin baino lehen. Bitxiena da tratamendu dietetiko hori dieta hipokaloriko bat egitea dela, bere kabuz edo osasun-ahalegin txiki batekin.

Zein laguntza mota eskaintzen da argaltzeko? Dieta bat? Edo baloi gastrikoa?
Pertsona horrek ba al du zerbitzu nutrizional espezifikorik bere koadro klinikoaren konplexutasuna diziplinartekotasunez tratatzeko?

Zaurgarritasuna

Pertsona bat arrisku handiago baten aurrean jartzen duten faktoreetatik ikusita. OBSarekin zerikusia duten ingurumeneko faktore batzuk kontuan izaten baditugu, zaurgarritasun-faktoreak antzeman ditzakegu:

- Ingurumeneko faktore goiztiarrak: gainpisua/OBS haurtzaroan izatea.
- Familian aurrekariak izatea: amaren obesitatea arrisku-faktore bat da bere ondorengo zuzenentzat; aurrez bultzatzen duen faktoretzat hartzen da TCA edo elikadura-portaeraren nahasmenduen etiopatogenian, eta haurtzaroko obesitatean.
- Emakumearen bizi-zikloaren zenbait arotan: nerabezaroan, haurdunaldian eta menopausian.
- Emakume nerabe edo gazte batek TCA bat pairatu izana.
- Argaltzeko dieten hasiera goiztiarra (sarriago neskengan, betiere).
- Tratamendu dietetiko hipokalorikoak errepikatzea (argaltze eta loditze zikloekin).
- Argaltze-dietak, edozein moda-, edertasun- edo txutxu-mutxu aldizkaritan aise zabaltzen direnak, probatzen dituen pertsona ez dago arriskutik libre. Erlazionatutako arriskuak oso ezberdinak dira: fisikoak, gorputzeko giharra galtzearen arrisku fisikoak, desnutrizio energetiko-bitaminiko-minerala, hilekoaren nahasmenduak, digestiboak, psikologikoak eta sozialak, nahasmendu obsesibo-konpulsiboak... Janet Polivy doktoreak «pazienteari nola lagundu dieta uzten» gaiari buruz oso lan interesgarriak argitaratu zituen, aspaldi, eta Herman CP egileak jarraitzen du. Beren ekoizpen zientifikoa pubMed-en ikus dezazuen gomendatzen dizuet.
- Psikofarmako batzuk hartzeko (antipsikotikoak, antidepresiboak, antiserotoninergikoak), emakumea izango da xede-populazioa.

- Tabakoaren ohitura uztea oztopo izan ohi da emakume batzuentzat, pisuaren igoeragatik, mendekotasuna gainditzeko programetan sartzeko.
- Faktore sozioekonomikoak. SEEDO'97 ikerketan baieztatu zen Espainian obesitatearen prebalentzia beheko maila sozioekonomikoetan altuagoa zela, bereziki emakumeengan. Elkarketa hori beste kohorte batzuetan ere errepikatzen da. Gure komunitatean daudenak hementxe erakusten dizkizuet:




Obesitatearen desberdintasunak klase sozialaren arabera, 2013
Desigualdades en la obesidad por clase social, 2013
Obesitatea duen biztanleriaren prebalentzia*
Prevalencia de población obesa*
15
10
5
0
%
I (Altua-Alta)
II
III
IV
V (Baxua-Baja)
Gizonezkoak-
Emakumezko
*Adinaren arabera estandarizatua / Estandarizada por edad
EAEOI
ESCAV


Obesitatearen desberdintasunak ikasketa mailaren arabera, 2013
Desigualdades en la obesidad por nivel de estudios, 2013
Obesitatea duen biztanleriaren prebalentzia*
Prevalencia de población obesa*
15
10
5
0
%
Lehen Hezk. - Primaria
Beheko BH - Secundaria, baja
Goiko BH - Secundaria, alta
Unibertsitatea - Universitaria
Gizonezkoak-Hombres
Emakumezkoak-Mujeres
*Adinaren arabera estandarizatua / Estandarizada por edad
EAEOI
ESCAV
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Foroan partekatzeko jarduera (4). Grafiko hauetan zer ikusten duzue? Nola aldatzen da prebalentzia adinarekin, gizarte-klasearekin, ikasketa-mailarekin? Partekatzen dugu?

Gure gizarteko zein beste faktore erlaziona ditzakegu obesitatearen arrisku handiagoarekin?

- Bizimodu sedentarioa. Joan-etorrietarako garraioa eta autoa gehiegi erabiltzea, oinezkoentzat ez diren hiriak, oinez edo bizikletaz joateko kultura eskasa, horrela ibiltzeko hiriak prestatuta ez egotea, aisia-jarduera teknologikoak.
- Balio kaloriko handiko janaria gehiegi kontsumitzera bultzatzea. Arin eta bat-batean kontsumitzeko, merkeak (gozoki-dendak, freskagarriak, *vending* makinak, hanburgesategiak, pizzeriak, XXL produktuen ontziak). Askaritan ogitartekoa jatea, familiako bazkariak, aire zabalean jateko edo dieta mediterraneoaren antzeko dieta tradizionalaren ohiturak galtzeko joera pertsona gazteengan (eta ez hain gazteengan).
- Etxearen antolaketa janaria prestatzeko denbora urriarekin —mahai-inguruan elkartzea, bazkaldu ondorengo solasaldiak—. Familiako elkarbizitza, partaide bakoitza bere gelan isolatuta.
- Komunikabideen eragina: mezu kontrajarriak (jan hau edo bestea, jan mugitzen zaren artean, *ezberdina izan baina nik esaten dizudan moduan*).
- Eredu edo gizarte-estereotipoen eragina arrakasta pertsonala eta lan-arrakasta lortzeko, argaltasun, edertasun, gaztetasun eta aberastasunarekin batera.

Lodifobiari edo obesitatearen estigmatizazioari buruzko bideo hau ikustea gomendatzen dizuet, eta gorputz-dibertsitatea defendatzen duen emakume talde baten erantzun kritikoa; zalantzan jartzen dute pertsonen pisu-osasuna neurtzeko erabili ohi den GMIa. Eztabaida hori dela-eta, zenbait ikerlanek metabolikoki osasuntsua den OBSa eta osasuntsua ez dena ezberdintzen ditu. Nire aburuz, analisirako eta tratamendurako aukera ezberdinak zabaltzen ditu.

4.1.4 Osasun-zerbitzu eta -baliabideetara iristeko eta horiek erabiltzeko gaitasuna

Alderdi hau aztertzeko, galde daiteke:

✓ Osasun-arazo hau tratatzeko, zein osasun-arreta mota eskaintzen zaio komunitateari?

- ✓ Modu indibidualizatuan terapia nutrizionalerako jarraibideak emateko, ba al daude baliabide publiko koordinatuak, pertsonen bizi-estilora, ekonomiara eta jakituriaren arabera egokituta?
- ✓ Ba al dago baliabiderik lortutako emaitzak gainbegiratzeko eta beharrizan berriak bideratzeko?
- ✓ Denbora eta pertsonala jartzen al dira ariketa mota arautzeko eta heziketa nutrizionalerako programak garatzeko anbulatorioetan, lantokietan, eskoletan?
- ✓ Berariazko formazioa izaten al du langileriak, jarraibide nutrizionala indibidualizatzeko eta gainpisuari/obesitateari atxikita edo horri dagozkion elikadura-portaeren nahasmendu espezifikoei buruz?
- ✓ Ba al daude gainpisurako/obesitaterako laguntza-taldeak bizi-zikloaren etapa guztietan?
- ✓ Gainpisua/obesitatea duten pertsonen benetako beharrak asetzen al ditu eskaintza pribatuak?
- ✓ Nutrizio-kontsultetara doazen pertsonek zein oztopo izaten dituzte? (ekonomikoa, tratamendu eta terapeuta motak).
- ✓ Tratamenduak luzeak izan ohi dira, baita *bizitza osorakoak* ere. Denbora eta ardura behar dute, beste terapia eta terapeuta batzuen koordinazioa, laguntza banan-banan eta taldean. Horrek guztiak, laguntza publikorik gabe, kostu handia eragin diezaioke pertsonari, ordainezina izatera iritsi arte. Zein da argaltzeko ordaindu behar den prezioa?
- ✓ Tratamendu horiek jarraitzeko zentro espezializatuak zenbat kilometrora daude? Zein hiritan? Beste autonomia-erkidego batzuetan?
- ✓ Ordutegia bat dator premia duten pertsonen erabilgarritasunarekin?
- ✓ Nerabeen kasuan, familiaren baimena izaten dute?
- ✓ Osasun nutrizionalaren zerbitzua behar duten pertsonek ezagutzen al dituzte dauden baliabideak? Haien kalitateaz informatuta al daude? Iruzurrezko publizitatea? Ahoz ahoko publizitatea? Medikuaren aginduz?
- ✓ Aukera terapeutikoak nola komunikatzen dira kontsultetan? Pribatuen kasuan, (nutrizioa, estetika) bezero berriak eskuratzean eta fidelizatzean datza?
- ✓ Atentzioaren kalitatea nola sumatzen dute kontsultetara doazen pertsonek? Zer balioesten dute proposatutako tratamenduan? Zein da lehentasuna? Emaitza arinak? Arazoaren kontzientzia? Salneurria? Egin beharreko konponketa estetikoak?

- ✓ Gainpisua/obesitatea duten pertsonek zer ezagutzen dute beren arazoaz, osasunaz, pronostikoaz, itxaron daitezkeen emaitzez? (ondorioak, kronikotasuna, *multifaktorialtasuna*, dieten porrota, ezagutza zientifiko eskasa) Errealitate eskaseko itxaropenek frustraziora eraman ohi dute.
- ✓ Arazoak noraino oztopatzen ditu eguneroko ekintzak? Norberaren garbitasuna, lanak edo ikasketak, gizarte-harremanak, harreman afektibo-sexualak, ekintza fisikoa, aisialdiko ekintzak, jantziak erostea, lan batera aurkeztea, etab.
- ✓ Obesitatedun gorputz batek jasaten duen estigmatizazioak dakartzan arazoen estigmatizazioarekiko sentsibilitatea du gure gizarteak? Intolerantzia-maila berdina du obesitateak gizon batek ala emakume batek nozitzen duenean? Nork zaindu behar du hobe? Ez du «etsi» behar?

Galdera horiek erantzun ezberdina jasoko lukete emakumea, gizona, ala trans-generoa izanda?

4.1.5 Osasun-zerbitzu eta -baliabideetara iristeko eta haiek erabiltzeko gaitasuna

Osasun-zerbitzuetan, obesitateak eragiten duen osasun-gastuaz hitz egiten denean, gaixotasunetik eratorritako konplikazioek sortzen dituzten gastuez ari dira sarritan. Adibidez, konplikazioen artean, nabaritu daiteke diabetes mellitusak eta gaixotasun kardiobaskularrek obesitatearen gastuen %80a hartzen dutela. 2003. urtean, gaixotasun honen kostu globala 2.049,40 miloi eurokoa izan zenean, kalkulu batzuen arabera, 30 eta 35 kg/m^2 arteko GMIa zuten pertsona/urte bakoitzeko gastua %25 handiagoa zen 24,9 kg/m^2-tik behera zeukatenena baino. Portzentajea %44tik gorakoa da 35 kg/m^2-tik gorakoa denean (arestian aipatutako iturritik hartutako datuak).

NAOS estrategia

Kopuru horiek kezkagarriak dira, pazienteak errudunets ditzaketelako. Testuinguruan jarri behar da, eta gastu horren arrazoiak aztertu. Zenbateko aurrezpena suposatuko luke, akaso epe luzean, gainpisua/obesitatea duten pertsonak eta horien familiak osasun-asistentziako programa integraletan ezartzeak? Zer dakigu NAOS estrategia bezalako obesitatearen prebentziorako programak ematen ari diren emaitzez?

Obesitatea arazo bio-psiko-sozial bat da, eta, ondorioz, bere tratamendua horrela planteatu beharko litzateke: beharrizan fisiko, psikologiko eta sozialei jaramon eginez,

bizitzeko era kontuan hartuz. Pertsona modu indibidualizatuan artatu behar da, estereotipoetatik eta aurreiritzietatik at, laguntza sozial, familiar eta sanitarioarekin.

Gogoratu:

Genero-analisia lagungarria da emakumeak eta gizonak modu ezberdinean gaixotzen direla ulertzeko, ez bakarrik beren sexu/ugal-berezitasunengatik, baita beste berezitasun bio-psiko-sozial batzuengatik ere; emakumeengan eragin nabaria dute horiek, eta osasun-zientzietan ikusezinak izan dira.

5. Gehitu genero-ikuspuntua osasunaren ikerketan: Bilbon egin zen *Osasun-ikerketa genero-ikuspegiarekin* mahai-inguruaren transkripzioa (2013ko azaroa)

Nire lehenengo hurbilketa gaira arestian aipatu dudan *Guía para incorporar la perspectiva de género en la investigación en salud* (Maria del Mar García Calvente y cols, 2010) delako gida irakurtzea izan zen. Berdintasuneko zuzendaria zen Jasone Astolaren aginduz izan zen, UPV/EHUko gizon eta emakumeen arteko berdintasunerako lehen plana gauzatu zen momentuan. Onartu behar dut liluratu egin ninduela, eta hunkituta gelditu nintzela dokumentuan azaltzen ziren ideia «iraultzaileekin». Nire ustez, irakurri beharreko gida bat da, osasunaren ikerketan generoaren sentsibilitatearekin hasten den edozein pertsonak irakurri beharrekoa. Dokumentu gehigarrietan kontzeptu-mapak erantsi ditut, liburu horretatik atera nituen oinarrizko ideiak dituztenak.

Ondoren, (*Estrés laboral, doble jornada, patrones alimentarios e interacción con el género*) delako ikerketa proiektuarekin zerikusia zutelako, Lucia Artazkoz Lazkanoren lan

epidemiologikoak eta emakumeen ikusezintasunaz eta morbilitate diferentzialaz Carme Valls Llobet[7]-ek egindako argitalpenak ezagutuz joan nintzen.

Ezagutza hori partekatzeko aukera izan dut UPV/EHU[8]n antolatu genuen mahai-inguru batean, osasunaren ikerketan genero-ikuspegiaren gaia jorratzeko eskuzabaltasunez parte hartu baitzuten biok. Saio osoa bideoan grabatu zen, eta atal hau lantzeko informazio-iturritzat erabiliko dugu.



Mahaia Amaia Bacigalupe de la Hera soziologoak aurkeztu eta moderatu zuen: bere ikerketak Euskadiko osasunean ageri diren gizarte-desberdintasunak aztertu ditu, eta Magisteritzako irakasle den Ainhoa Ezeiza Ramosek dinamizatu zituen sare sozialak, mahai-inguruaren aurretik eta hura egin zen artean.

Zer esan nahi du osasunaren ikerketan genero-ikuspuntua (GI) gehitzeak? Ikerketa horretan alborapena edo isuria dagoela kontzientzia hartzea esan nahi du (Margrit Eichler 2001), hala nola androzentrismoa, genero-sentsibilitate falta eta estandar bikoitzak (ikus kontzeptu-mapa), ikerketaren prozesu osoan eragina izango dutenak: diseinutik eta proiektuak gauzatzetik hasi, eta emaitzen difusiora, emaitzen ebaluaziotik eta aukeratze-prozesutik pasatuta.

Ondoren, hiru hizlarien ekarpenak transkribatuko ditut, bi galdera errazetatik abiatuta; «zergatik eta nola», besterik ez; osasunaren ikerketa egiteko orduan genero-ikuspuntua zergatik den garrantzitsua arrazoitzeko. Testuan zehar, gaia hobeto ulertzeko galderak

[7] Autore berak horrela definitzen du morbilitate diferentziala: «conjunto de enfermedades, motivos de consulta o factores de riesgo que merecen una atención específica hacia las mujeres, porque son problemas que atañen exclusivamente a la salud femenina o también porque son más frecuentes en la mujer. Incluye entre las patologías tanto las causadas por las *diferencias biológicas* respecto al sexo masculino (diferencias genitourinarias y reproductivas) como aquellas que sin ser específicas del sexo femenino se presentan con mayor frecuencia, (alta prevalencia) en la mujer, y son causa de muerte prematura, enfermad o discapacidad entre estas más que entre los hombres como son las anemias, el dolor crónico, las enfermedades autoinmunes, las endocrinológicas, la ansiedad y la depresión».

[8] Jarduera honek dirulaguntza jaso zuen Berdintasunerako Zuzendaritzatik, dirulaguntzetarako deialdian, 2013an UPV/EHUn emakume eta gizonen arteko berdintasuna bultzatzeko hitzaldiak eta jardunaldiak antolatzen parte hartzeagatik.

egingo ditut, eztabaidatzeko eta zuen ikuspuntuekin partekatzeko. Paragrafo hauetan entzungo dugu haien ahotsa.

Lehendabizi, Amaia Bacigalupe entzungo dugu, gaiaren sarrera egiten eta hizlariak aurkezten. Galdera: Zergatik da garrantzitsua osasunaren ikerketan GI gehitzea? Edo, beste era batera esanda, zer arrazoi daude orain arte egin izan dugun fokatzea, prozedura edo ondorioak interpretatzeko modua auzitan jartzeko?

5.1 Lan-osasunaren epidemiologian gehitu. Lucía Artazcoz Lazcano

Lan-osasunean genero-ezberdintasunen ikerketarekin eta familia-bizitzaren bateragarritasunarekin zerikusia duten metodologia-alderdi batzuekin erantzun du. Funtsezko hiru arrazoi proposatu ditu, osasunean generoaren ezberdintasunak ulertzeko:
1. Generoaren sozializazio ezberdina: sexu bakoitzari jarritako rol ezberdinak eta genero-arauak.
2. Boterearen ezberdintasunak eta baliabideak eskuratzeko ezberdintasuna: ongi dokumentatutako ahalegin diagnostiko eta terapeutiko txikiagoa.
3. Lanaren banaketa sexuala. Gaur egun, oraindik ere, kultura eta politika berdintzaileagoko gizarteetan (genero kontuetan) gizonezkoei paper nagusia ematen zaie ordaindutako eremuetan, hobeki ordaindutako lantokietara iristeko, esfera publikoan egoteko (onartua, estatusduna eta ikusgarria). Aldiz, emakumeak protagonistago dira etxeko esferan eta familiartean, esfera pribatuan (estatusik gabe, ikusezinak, ordainsaririk gabe).
Hori oinarrizkoa da osasun-arloan genero-ezberdintasunak ulertzeko.

PNAS aldizkariaren adibide batean oinarrituta, Science Faculty's subtle gender biases favor males students (Corine A Moss-Racusin et al. 2012), adibide bat aurkeztu du, eta *La Vanguardia* egunkariko «Sexismoa laborategian» izenburudun artikulua ere bai.

Foroan parte hartzeko (5). Antzeko egoerarik ezagutzen duzu? Zer bururatzen zaizu adibide horretaz? Nola zuzendu halako egoerak?

Galdera honako hau da: Zergatik da garrantzitsua pertsonen osasunean lanak duen eraginari buruzko ikerketa-lanetan GI gehitzea? Hiru arrazoi eman ditu:

1. giltza: lana ez da laneko arriskuen eraginpean jartzea bakarrik.

Hasiera batean, lan-arriskuen ikerketa, segurtasuna, higienea, lanpostuaren ergonomia aztertu zituen, eta, ondoren, arrisku psikosozialak. Baina lana hori baino gehiago da: aukeren iturria, errealizazio pertsonala, independentzia ekonomikoa, onarpena eta estatusa. Lana, beraz, gai estruktural bat da, erabakigarria osasunean, eta haren gorabeheretan genero-ezberdintasunek eragiten duten mekanismo bat.

2. giltza: lanak eta osasunak beharrezkoa dute genero-ikuspuntua.

Sexu bien arteko ezberdintasunak kontuan izanik (biologikoak, psikosozialak –genero-sozializazioa–), esposizio beraren aurrean balio eta jarrera ezberdinak agertuko dira. Esposizio bera modu ezberdinean bizi daiteke lanean, eta erantzun ezberdina jaso dezake. Modu berean bizi al dituzte gizonek eta emakumeek laneko gatazkak? Berdin erantzuten al dute? Lanpostuaren galera berdin bizi al dute gizonek eta emakumeek? Eta erantzun bera ematen dute?

Gizarte guztietan dago sexuaren araberako lan-banaketa, baita gizarte berdinzaleenetan ere.

Gaur egun, oraindik ere, gizonezkoei lan-munduan egozten zaie paper nagusia, eta emakumeei etxeko esferan.

a) Lan-merkatuan honako hau dago:

- Bereizketa horizontala: maila/hierarkia berean lan ezberdinak, eta, beraz, osasunerako arriskuen eta arrisku-faktoreen aurreko esposizio ezberdina.
- *Adibideren bat jar dezakezu?*
- Bereizketa bertikala: ezberdintasuna (hau da, bidegabea, sistematikoa eta saihets daitekeena), kristalezko sabaia delakoa adibidez, emakumeek promozionatzeko ditugun zailtasunak adierazteko.

Kontuan izan behar da gizarte-klasea, osasunaren gizarte-eragile nagusia, lanaren kategoriak markatuta datorrela.

b) Etxeko eta familiaren eremuan: lan horren erantzuleak gara modu ezberdinean; gizonezkoei etxeko eusle ekonomiko nagusiaren papera egozten zaie.

Foroan parte hartzeko (6). Ados zaudete? Etxe askotan gertatzen al da hori? Ala gainditutako rolak direla uste duzue?

3. giltza: interakzioa

Sexua interakzioaren aldagarri bat da. Sexuarekiko gizartearen banaketa oso markatuta dago. Emakumeak eta gizonak posizio desberdinak eta ezberdinak ditugunez, gure osasunean eragiten duten faktoreak ezberdinak dira, eta hori interakzioa da. Horrek esan nahi du ikerketan egiten ditugun galderen erantzunetan sexua ezin dela izan aldagarri sinple bat, geruzatzearen aldagarri bat baizik. Eta, gainera, kontuan izan behar da ezberdintasunaren beste aldagarri batzuekiko elkargunea, klase sozialarekikoa adibidez. Adibide bat jarri du hori azaltzeko: *Gender inequalities in health among workers: the relation with family demands* (Artazoz et al., 2001); langileen artean egindako ikerketa bat, familiaren eskakizunek osasunean duten eraginari buruz.



Table 3 Multivariate odds ratios (OR) and 95% confidence intervals (CI) for the associations between self perceived health status and the independent variables by sex (Catalonia Health Survey, 1994)

	OR (95% CI)	
	Men	Women
Occupational social class		
Non-manual	1	1
Manual	1.95 (1.53 to 2.48)	2.07 (1.53 to 2.80)
Household size		
Two	1	1
Three	0.98 (0.62 to 1.57)	1.24 (0.70 to 2.19)
Four	1.23 (0.79 to 1.92)	1.62 (0.93 to 2.82)
> Four	1.13 (0.68 to 1.87)	2.48 (1.38 to 4.46)
Living with children under 15		
No	1	1
Yes	1.08 (0.79 to 1.49)	0.83 (0.57 to 1.23)
Living with people older than 65		
	1	1
	0.82 (0.56 to 1.21)	0.60 (0.36 to 0.98)

also adjusted for age.

Foroan parte hartzeko (7). Nola neurtu zuten bere eragina osasunean? Zer ikusi zuten 2001ean? Zer argitaratu zuten 2007an? Zer iritzi du egileak ondoren aurkeztutako analisiari buruz?

5.2 Zainketa informala ikerketan gehitu. María del Mar García Calvente

Osasunean zainketa informalari buruz egiten dituen ikerketetan zentratuko da galderari erantzuteko. Hasteko, bi galdera nabarmentzen ditu:

- Ba al dago genero-ekitate arazorik osasun-ikerketan?
- Nola hartzen dute parte gizonek eta emakumeek ikerketa-prozesuan?

Adibide bi ematen ditu, eragin handiko aldizkarietan emakume zientifikoek duten partaidetzaz: bai autoretzan bai argitalpen-batzordeetan, sistematikoki gizonen aldekoa ari da izaten genero-arrakala. *Nature* aldizkarian (2013ko martxoaren 8an) sexismoa zientzian gaiari eskainitako monografia bat argitaratu zuen, eta aldizkariak berak arazotzat identifikatu zuen emakume zientifikoen partaidetza ezberdina ezagutza zientifikoa ekoizteko orduan.

Azpimarratuz «GI gehitu ezean, ikerketaren kalitatea arriskuan jartzen da», zientzia txarra egitea da. Eta Margaret Eicher-ek (1992) esandakoa azaltzen du: «Itsukeria edo genero-alborapena errakuntza handia da, ikerketa zientifikoan akats mota larria sartzen duena».

Zainketa informalaz duen bere ikerketa-lerroa aurkeztu du, generoak osasunean eragiten dituen ezberdintasunak adierazteko.

Zer da zainketa informala? Horrela definitzen du: «Lan ez-ordaindua, merkatuko preziorik eta baliorik gabea, harreman afektibo eta senideartekoan oinarritua, arlo pribatuan eta «familiarteko gaietan» sartua, plaza publikorako ezkutuan».

Emakumeei egotzitako zeregina da, haien genero-rolaren zati bezala, «emakumeen kontutzat» hartua. Oso *feminizatuta* dago, lanaren banaketa sexualari dagokio, eta erabat bereizita dago osasunean duen eragina.

Foroan parte hartzeko (8). Ados zaudete? Halako kasurik ezagutzen duzue inguruan? Zainketaren lana nola banatzen da sozialki?

OCDEko herrien artean Espainia da proportzio handi batean zainketa informala intentsiboagoa eta modu ezberdinean partekatua duena (ikus grafikoak bideoan).

Zer ulertzen da osasun-ikerketan genero-alborapentzat? Nahigabeko ezberdintasunak baina inplizituak, gizon eta emakumeen artean, genero bat bestearen gainean ezartzen dutenak posizio hierarkikoan, maskulinitatearen eta feminitatearen irudi estereotipatuen

ondorioz, sistema zientifikoaren egitura *generizatu* batera daramatenak. (MIT, 1991, Europako Batzordea 2004).



Eta ikerketako

zazpi arazo sexista aurkezten ditu:

1. Androzentrismoa.
2. Gaingeneralizazioa/gainespezifikotasuna.
3. Genero-sentsibilitaterik eza.
4. Estandar bikoitzak.
5. «Sexu-egokitzea».
6. Familismoa.
7. Sexu *dikotomismoa*.

Jarraian, autoreak horietariko hiru azaltzen ditu bere ikerketari aplikatuta.

Foroan partekatzeko (9). Entzun androzentrismoari buruz Maria del Marrek esaten duena, zainketa informalari dagokionez. Defini ezazu zeure hitzekin. Kontuan hartu zein ondorio izan dezakeen joera horrek genero batengan edo bestearengan. Ulertzen duzu? Ados zaude? Zergatik?

1. Androzentrismoa (nota hartzeko)

- Gizonezkoak normatzat hartu eta emakumeak horrekiko balioztatzea esan nahi dezake.

_____

- Emakumeak (ala gizonezkoak) azpiordezkatu edo kanpoan uztea arlo maskulinoetan (edo femeninoetan) esan nahi du. _____
- Maskulinoaren nagusitasuna «normal»tzat hartzeak honelako ondorioak ekar ditzake. _____
- Emakumeak erruduntzat hartu edo *biktimizatu* ikerketaren marko teorikoan; gizartearen arazo bat biomedikotzat hartzea ekar dezake _____

2. Generoarekiko sentsibilitaterik eza. Sexu- eta genero-aldagarriak kontuan ez izatean datza, desorekak *betirakotuz*, edo emakume/gizon arteko ezberdintasunak kontuan izan gabe, testuinguruan jarri gabe. Zainketa informalaren kasuan, gerta daiteke:

2.1 *Familismoa*: familia ikerketarako unitatetzat hartzen denean, eta ez direnean kontuan hartzen familiaren barruko harremanetan generoaren ezberdintasunak, arduretan, zametan eta zainketen kostuetan.

2.2 Deskontestualizazioa: ezikusiarena egin itxuraz berdinak diren egoerek eragin ezberdina dutenean emakumeengan eta gizonengan; adibidez, zainketaren eragina.

3. Estandar bikoitzak: ikerketan arrasera ezberdina erabili. Adibidez:

3.1 Sexu-dikotomismoa: berdintasuna dagoen egoera batean, gizon eta emakumeen arteko ezberdintasunak areagotu.

3.2 Genero-estereotipoen *reifikazioa* (*esentzializazioa*); hau da, dependentzia duten pertsonen zainketa «intrintsekoki emakumeena» balitz bezala hartu. Adibidez, emakumeok berezkoak ditugulako zaintzeko behar diren trebeziak. Hori betikotu egiten da osasun-arloko profesionalen estereotipoekin ere.

Foroan partekatzeko (10). Entzun jartzen duen adibidea. Ados zaude? Ezagutzen duzu halako kasu erreal bat, parteka dezakezuna? (betiere, pertsonen nortasuna babestuz)

Genero-alborapenak ikerketa-prozesuan. Saioan aurkeztu ziren diapositibetatik informazio zati batzuk ezkutatu dira, bideoa ikustean osa ditzazun.

Ulermena hobetzeko, ekintza osagarria: ikusi bideoa eta osatu.

a) Zer ondorio erator daitezke ikerketaren kalitatean, bere diseinuan egin daitezkeen alborapenetatik?

b) Ikerketan ateratako emaitzen hedapenean, zer alborapenek eramaten dute erakusten diren ondorioetara? (ikusezintasuna, komunitate zientifikoan onarpen falta, ikerketa-gaiaren gutxiespena eta zainketaren estereotipoa indartzea).





5.23 Genero-alborapena osasun-laguntzan. Carme Valls Llobet

Osasun-laguntzan dauden genero-alborapenen ikuspegitik erantzun du. Urteak daramatza zientzia guztietan sarri dauden elementuak aztertzen, medikuntzan barne: patriarkatuaren arauak, emakumeak ikusezin bihurtzeko, gutxiesteko (*inferiorizar*), kontrolatzeko edo haietaz jabetzeko. Galderari erantzun dio emakumeen hilkortasunean egindako behaketa birekin: arazo kardiobaskularren ikusezintasuna, heriotzen lehen kausa direlarik; eta emakumeen osasun mentalaren *medikalizazioa*, «gaixoratzea» (*enfermalizazio* delakoa) eta emakumeen heriotza-tasa handiagoa areagotzen duelako.

1. Arazo kardiobaskularren ikusezintasuna. Zer-nolako alborapenak daude emakumeen gaixotasun kardiobaskularretan?

Ekintza osagarria ulergarritasuna hobetzeko: ikusi bideoa eta hartu oharrak.

Zergatik bihurtu da KB gaixotasuna <u>ikusezintasunaren paradigma</u> morbilitate bereizgarrian?

Ekintza osagarria ulergarritasuna hobetzeko: ikusi bideoa eta hartu oharrak.

Ulermena areagotzeko galderak:

- ✓ Miaketak (kateterismoa, esfortzu-frogak) maiztasun berarekin egiten dira sexu femeninoaren kasuan? (Ayanian & Epstein 1990, Marrugat 1998).
- ✓ Zer atzerapenarekin iristen dira emakumeak ospitalera miokardio-infartua izanda, gizonekin alderatuta?
- ✓ Zer ondorio dauzka horrek tratamendu *tronbolitiko*etan?
- ✓ Infartuaren ondorengo hilkortasuna handiagoa al da emakumeengan? Zein da portzentajea, gizonekin alderatuta? (Benz Scott, 2002)
- ✓ Zer eragile psikosozial aipatzen du Carme Vallsek azalpen posibletzat? Zer rol betetzen ari da horrekin?

<u>Zergatik gertatu da hori</u>?

1980-1090 hamarkadan egin diren gaixotasun koronarioen inguruko ikerketa-lan gehienak gizonezkoen populazioarekin egin dira. Garrantzitsuenen artean, honako hauek daude:

- *The administration cooperative Study* (Murphyet al 1977) *Benefits of coronary surgery in groups of male patients with angina* (15.000 gizonezko).

-*Physicians Heart Study* (Manson, Grobbee and Stampfer, 199) *Aspirin may prevent heart attacks in men* (22.000 gizonezko).
-*Multiple Risk Factor Intervention Trial* (1982) (12.000 gizonezko).

Emakumeak ikerketa-lan horietatik kanpo gelditu ziren, baina infartuaren tratamenduan gizontzat hartu ziren. Hori bai, gizonezkoen sintomatologia berarekin agertzen zenean soilik, medikuek «antzemateko» moduan, hau da, gizonezkoen patroi klinikoarekin. Bernardine Healy-k *Yentl-en sindrome* deitu zion horri. Beraz, miokardioko infartuen sintomak ezberdinak dira emakumeengan, gizonezkoek azaltzen dituztenekin alderatuta, eta ez dira antzematen: mina bihotz aurrekoa da nagusiki, eta abdomeneko minaren sentsazioarekin hasten da. Mina masailezurretara irradiatzen da, eta ez horrenbeste ezkerreko besora (gizonezkoen patroi klinikoan bezala).



Emakumeek parte hartzen zuten ikerketak aztertu direnean, %24,6an bakarrik sartu ziren emakumeak, eta 17 lanetan bakarrik genero-ikuspegiarekin.
Carme Vallsen gogoeta: «Emakumeek ikusgarritasun gutxi kardiologiarako, eta oso ikusgarriak *medikalizaziorako*».

2. Osasun mentalaren medikalizatzea.
Zer da *medikalizatzea* edo *medikamentatzea*?
«Gaur egungo medikuntzaren esparrua da, azken urteetan zabaldu den modua; orain, arazo asko barne hartzen ditu, duela gutxi arte entitate medikotzat hartzen ez zirenak» (Kishore, 2002).

Zer gertatzen zaigu Espainian?
Aurkezleak hauxe azpimarratzen du: «Lehenengo kontsultan litekeena da emakumeari psikofarmakoak aise ematea. Espainia da mundu osoko lehen herria emakumeei lehen mailako arretan errezeta bidez psikofarmakoak ematen zaizkiena».

Zer gertatzen da farmaziako fakturarekin?
Benzodiazepinak eta depresioen aurkako trizikloak hartzen dira sarrien.

Lehenengo kontsultan litekeena da emakumeari psikofarmakoak aise ematea. Somniferoek (berauen kontsumoa handituta dago) ondorio kaltegarri larriak dituzte (logura egunez, zorabioa, haluzinazioak). Horregatik, eta eguneroko ekintzetan izan dezakeen eraginagatik, 2013an FDAk derrigortu egin zituen fabrikatzaileak emakumeen dosiak erdira jaistera (eta gizonezkoena berraztertzera).
FDAk ohartarazten du, baita ere, emakumeen artean hilkortasunaren igoera dagoela, minaren kontra opiazeoen kontsumoa erabiltzen dutenean. Errezetatu baino lehen adierazten du balioetsi behar dela arrisku/onura arteko erlazioa. Espainian, bereziki, fibromialgia diagnostikatu zaien emakumeekin erabiltzen dira.

Marcia Angell: *The New York Review of Book* zuzendu zuen lehen emakumea zenean, 2011n gaixotasun mentalari lotutako desgaitasunek arduratu zuten, 1987tik 2007ra hazi egin zirelako: 184 amerikarretatik bat izatetik, 76tik bat izatera. Hazkundea 35 bider handiagoa izan zen neska-mutilen artean 2o urte horietan (TDH edo TDAgatik). Eta kritiko azaltzen da argitaratu zen azkenarekin, honako hau esanez: «sintoma guztiak gaixotasun mentalak dira». Eta artikulu bat eransten dut, Enrique Echaburúa & cols (2014)-ek idatzia: «Aportaciones y limitaciones del DSM-5 desde la Psicología Clínica».

Interesgarria iruditu zait Allen Frances psikiatraren ikuspuntu kritikoa ere, Angeles Lópezek (2014) idatzitako artikuluan: «Las pastillas matan más que las drogas», *El Mundo Digital*.
Azkenean, Bilboko Medikuen Kolegioak *Así es la Vida* kanpaina diseinatu du; ekimen horretan, bideo musikal bat da komunikazio-tresnarik oinarrizkoena, umore ukituarekin, errespetuz eta hurbiltasunez, gaur egungo bizitza nola eragiten ari den gehiegizko *medikalizazioarekin*.

Azalpen horrekin amaitu zen saioaren lehen zatia. Atsedenaldiaren ondoren, hiru hizlariek «NOLA gehitu genero-ikuspuntua osasun-ikerketan?» galderari erantzun zioten. Eta aurreko eskemari jarraituz erantzun zuten, beren praktika bakoitzaren ikerketa-arloan aplikatuz.

Haien ekarpenetan oinarrituta, honako ekintza hau proposatzen dizuet:

Ulertzeko eta garatzeko ekintza
(ebaluazioan kontuan hartuko da):

Bigarren zatiko bideo osoa ikusi eta ideia nagusiak atera. Zuen lanerako (edo interes pertsonalagatik) interesgarrien iruditzen zaizuen erantzunaren laburpena egin.

Laguntza gisa, *timing* bat prestatu dut haien aurkezpenen transkripzioarekin.

Erantzun interesgarri ugari dago. Izan sortzaile eta libre: gozatu!

6. Genero-ikuspuntua osasunaren irakaskuntzan txertatu

Duela pare bat urte, EHUko irakasle talde batek SAE/ELAZek eta Berdintasunerako Zuzendaritzak elkarlanean antolatutako irakasleen prestakuntza-ekintza batean parte hartu genuen. «Genero-ikuspuntua gehitzea esparru zientifiko eta teknologikoan» zuen izenburua, eta Maria Mercedes Alvarez Lires izan zen irakasle; eta animatu egin gintuen aspaldiko edo gaur egungo emakume zientifiko baten biografia idaztera. XIX. eta XX. mendeetan sortutako jakiturian emakumeek egin duten ekarpena hain gutxi ikusten zela aztertu ondoren, ekintza bat gauzatu genuen: ezagutzaren arlo ezberdinetako irakasleak partekatu eta proposatu genituen gure irakaskuntzan genero-ikuspuntua txertatzeko. Han azaldutako ideiak laburbiltzen ditut:



1) **Emakumeen berreskuratze historikoa arlo zientifiko eta teknologikoan.** Jakintza-esparru bakoitzean egin ohi ditugun erreferentzia historikoetan, emakumeen biografiak txertatuz, eta ezagutzaren eraikuntzan haiek egindako ekarpenak agerian jarriz. Bide honetan, Marta Macho Stadler eta Maria Jesús Irabien Gulias lan interesgarria
eta baliotsua ari dira egiten *mujeresconciencia*[9] delako blogean, UPV/EHUren zabalkunde zientifikorako katedraren barruan: gonbidatuta zaudete hura bisitatzera eta gozatzera.

[9] Irakasle-ikerlari hauen ekarpena oparoa eta arrakastatsua izaten ari da. Emakumeon lan zientifiko, politiko, ekonomiko eta soziala bistaratzeko egin duten lana saritu da.

Aurreko urtean ekintza bateratu bat antolatu zen, emakume zientifikoak bistaratzeko; interesgarria gerta dakizuekeelakoan: Wikipedian *editatona* delako ekimen bat, emakume zientifikoak ezagutzera emateko, Mentxu Ramilo[10] Araujoren koordinaziopean; urte hauetan jarraipena izan du. Bide batez, Ana Ribera historialari eta komunikatzailearen posta eransten dizuet (Twitterren @Molinos1282), galdera honi erantzunez: zertarako balio du «*mujeres con ciencia*»ri buruz idazteak? Bi blog hauen (sortzailea eta) idazlea da: *cosas que (me) pasan* eta *pisando Charcos.*

2) **Gaur egungo emakume profesionalak egiten ari diren erreferentziazko lanak bistaratu ezagutza-arlo berezietan**, haien ikerketa-proiektu, argitalpen, komunikazio, partaidetza politiko eta abarretatik hasita. CSICen antolatutako Berrikuntza zientifikoak eta genero-ikuspuntua mintegiaren programan aurki ditzakezue emakume zientifikoen eta bioteknologoen erreferentziak, haien ikerketa-arloekin batera.

3) **Ikasleen partaidetza berdintasunezkoa klasean:**
   a. Ikasgelan behaketak egin, genero-desberdintasunak antzemateko edo berdintasun-momentuak nabaritzeko adibide gisa. Behaketa horrek sakontasun-maila ezberdinak izan ditzake; behaketa kualitatiboa edo kuantitatiboa izan daiteke, ekarpen mota eta gelan duen eragina balioetsiz (lankide gizonezkoak, lankide emakumezkoak eta irakasleria). Irakasle baten klase indibidualari begira egin daiteke, edo talde edo ikastetxe oso baten proiektu amankomuna izan daiteke.
   b. Nesken partaidetza aktiboa sustatu: neskak-mutilek egiten dituzten ekarpenak orekatuz. Adibidez: klaseko edo taldeko pertsona guztiek parte hartzea eskakizun bezala jarriz, banaka, eta zuzenki galdetu pertsona bakoitzari (neska eta mutil).
   c. Ikasleen kudeaketa-roletan aldaketak: koordinazioetan edo klaseko ordezkarien aukeraketan, ikastetxeko kudeaketan parte hartzea, ikastetxeko bizitza kulturalean parte hartzea.
   d. Laborategi-geletan jarritako rolak txandakatu. Materiala zaintze aldera (baliabide informatikoak, garbiketa, praktiketako materialaren matentze-lana), taldeetako lanetan partaidetza aktiboa bultzatu: notak hartu, planifikatu, emandako zereginak banatu, lidergoa partekatu...

[10] #Wikiemakumeok traolarekin sare sozialetan aurki daitezke emakume hauen ekarpenak, nazioartean #WomeninRed mugimenduarekin bat eginez.

4) **Emakumeen protagonismoa areagotu adibideetan.** Kasuetan eta ikasketa esanguratsua lortzeko problema didaktikoak aurkezten direnean; baita haien anatomia, fisiologia, psikologia berezitua, zaurgarritasun ezberdina eta tratamenduarekiko interesa areagotuz ere, eta beren rol sozial eta familiarraren interakzioa ulertuz.

5) **Identifikatu eta modu kritikoan balioetsi genero-alborapenak.** Ezagutza espezifikoen arloen aplikazio ezberdinetan betikotuta, eta kasuen azterketen bidez, bere ondorioak ikusi. Medikuntzaren esparruan, protokolo klinikoen alborapena antzeman, prebentzio-kanpainetan eta aplikatutako terapietan. Gomendagarria da Carme Valls Llobeti egindako elkarrizketa FUHEM Ecosocial-en ECOS 34 buletinean, UNEDeko irakaslea den Nuria del Visok egina. Medikuntzan genero-alborapenaren oinarrizko berezitasunak bildu ondoren, proposamen bat eginez bukatzen du: Osasun Zientzien unibertsitateko ikasketetan desberdintasunaren zientzia txertatzea.

Lehen mailako arretarako medikuak, gizonezko nahiz andrazkoen kasuan, edo ospitaleetan, ez dira bideratu sexu femeninoan izaten diren patologia nagusirako, eta ez daukate (ez delako existitzen) sexuaren araberako gaixotasunen sintomatologia-adierazpen ezberdina duten gaixotasunak somatzeko zientzia sistematizatua. Horregatik uste du... «beharrezkoa dela genero-ikuspuntua duen zientziaren garapena, zaurgarritasun berezitua ikusgarri eta publiko egiten duena, egon ezaren arrazoiak eta sintomatologia ezkutatzen dituen ez-jakituria zientifikoa eta sufrimenduaren kultura baztertzeko; eta emakumeentzat etsipena edo sumisioa aldarrikatzen duena, balizko zorigaiztoko patu batera daramatzana, ondoezean eta atsekabetuta biziaraziz». Carme Vallsen argitalpena, *Emakume ikusezinak* (346 orrialdetatik 23.ean).

Momentu honetan, gure inguruan aurrerapausoak ematen ari dira. Bilboko Medikuen Elkarteak eta *Emakumeak Medikuntzan* Foroak elkarkidetzan, 2018. urtean, «Somos diferentes ante el infarto de miocardio» kanpaina zabaldu dute. Miokardio-infartua gertatzen bada, emakumeek eta gizonek jasan ditzakegun sintoma desberdinak ondo identifikatzeko, lehenbailehen tratatzeko eta prebentzio-neurri egokiak zuzentzeko.

6) **Gaitegien eta testuliburuen eguneratzea**, genero-ikuspuntua gehitzen duten material didaktikoen ekoizpena bultzatuz. Bukatzeko, 2013an Vigoko Unibertsitatean egin zen III. berrikuntza-jardunaldia generoan. Irakaskuntza eta ikerketa, Maria Mercedes Alvarez Lires formatzailea partaide izan zelarik; tartean, beste gai interesgarri batzuk ere agertu ziren.

7) **Ekintza-plana.** Ikastetxean adostutako ekintza-plan bat diseinatu, modu progresiboan (sentsibilizatu - garatu - aplikatu), kooperatiboan eta elkarlanean (ikasleak - irakasleak - dekanotza-taldea), zeharkako moduan genero-ikuspuntua txertatzeko, lehen mailetatik graduondokoetaraino.

7. Baliabide bibliografikoak

Oharra: testuetan txertaturiko esteketatik aparte, hemen dauzkazue kontsulta ditzakezuen beste batzuk, gaika antolatuta.

7.1 Sexua eta generoa

Gune Anitza: aniztasunaren kontzeptua (Euskadiko Gazteriaren Kontseilua)
http://egk.eus/eu/argitalpenak/txostenak/
La UPV/EHU se adhiere al manifiesto 'Gune Anitza' por la diversidad
Gune Anitza: Manual para convertir los retos en realidad

Naizen: adingabe transexualen familien elkartea
https://naizen.eus/eu/

Chrysallis elkartea
http://chrysallis.org.es/stop-trans-patologizacion/
http://chrysallis.org.es/toma-la-palabra-yo-no-soy-una-nina-soy-un-nino/

¿Cerebro femenino, cerebro masculino?
http://mujeresconciencia.com/?s=cerebro+masculino+y+femenino

Marisol Salanova Burguera. *Estrategias para la sensibilización del personal sanitario sobre la transexualidad a través de las TIC* Innovaciones científicas y perspectiva de género (Programa)

Cultura Trans 2012 (1/4) Intervención Mª Rosa Almirall
https://www.youtube.com/watch?v=gxrUcFS_7xc

Cultura Trans 2012 - Intervención Eva Vela (Salud Trans 2/4)
https://www.youtube.com/watch?v=d3Ml0mcoh9c

Cultura Trans 2012: Salud trans (3/4) Intervención Carme Valls Llobet.
https://www.youtube.com/watch?v=oti3_c15ZiU

Barcelona iniciativa atender a la salud de las personas Trans*
http://www.caps.cat/images/stories/Rosa_M_Almirall.pdf

Pertsona hauentzako dauden baliabideak gida batean bildu dira
https://www.facebook.com/serveiTransit/

7.2 Generoa eta osasuna

OMS/Géner: http://www.who.int/mediacentre/factsheets/fs403/es/

Guía práctica para incorporar la perspectiva de género en salud
http://www.paho.org/hq/dmdocuments/2010/manualFinal.pdf?ua=1&ua=1

Salud 2020: la política europea para la salud y el bienestar
http://www.euro.who.int/en/health-topics/health-policy/health-2020-the-european-policy-for-health-and-well-being

Velasco Sara. *El sistema sujeto/sexo/género y el sistema biopsicosocial. Un marco teórico para el enfoque de género en salud.* Valencia 2014
http://jornadasaludemociongenero.uji.es/wp-content/uploads/2014/11/presentacion_conferencia_VELASCO_UJI_-2014.pdf

Velasco Sara. *Recomendaciones para aplicar el enfoque de género en programas de salud.* Observatorio de Salud de la Mujer, Ministerio de Sanidad y Consumo, 2008.
http://www.msc.es/organizacion/sns/planCalidadSNS/pdf/equidad/recomendVelasco2008.pdf

Salut cardiovascular i génere
http://www.sp.san.gva.es/biblioteca/publicacion_dgsp.jsp?cod_pub_ran=65291&tacc=17

Salud y Género (Illes Balears) Conselleria de Salut

Enfermedad cardiovascular en la mujer. Estudio de la situación en España. Sociedad Española de Cardiología. *Informe* realizado para el Observatorio de la *Salud* de la *Mujer*. Ministerio de Sanidad y Consumo. 2007
http://www.msc.es/organizacion/sns/planCalidadSNS/docs/enfCardiovascMujerEspana.pdf

Elena ALdasoro Unamuno. *La medicina ¿perjudica la salud de las mujeres?* Conferencia en Bidebarrieta dentro del ciclo "Emakumeek zientzia egiten dute" Ellas hacen ciencia. http://mujeresconciencia.com/?s=Elena+Aldasoro

Nerea Mazkiaran presenta a Elena Aldasoro Unamuno. *La visión androcéntrica en la investigación de salud identifica lo masculino con la norma*. Noticias de Navarra, 2015 http://www.noticiasdenavarra.com/2015/01/23/sociedad/navarra/la-vision-androcentrica-en-la-investigacion-de-salud-identifica-lo-masculino-con-la-norma

Medikalizazio gaiaz gehiago jakiteko: http://www.caps.cat/images/stories/Medicalizacion_de_la_vida_y_la_salud_Xarxa_de_salut_Margarita_Lopez_Carrillo.pdf

Carme Valls Llobet, Noemia Loio Marqués *Psicofármacos: ¿todas locas o un gran negocio?* Periódico Diagonal. Edición digital.20/09/16 https://www.diagonalperiodico.net/cuerpo/31337-todas-locas-o-gran-negocio.html

Amaia Bacigalupe de la Hera eta Unai Martín Roncero *Desigualdades sociales en la salud de la población de la Comunidad Autónoma del País Vasco.* La clase social y el género como determinantes de la salud. Ararteko. 2007 http://www.ararteko.net/RecursosWeb/DOCUMENTOS/1/1_701_3.pdf

7.3 Gainpisua, obesitatea, elikadura-asaldurak eta nutrizioa

Arrizabalaga JJ, et al. 2003. *Guía de práctica clínica para el manejo del sobrepeso y la obesidad en personas adultas*
http://www.elsevier.es/es-revista-endocrinologia-nutricion-12-articulo-guia-practica-clinica-el-manejo-13063039
Esteka honetan, baita ere: https://cmvinalo.webs.ull.es/docencia/Posgrado/4-TRASTORNOS-ALIMENTACION/Guia%20obesidad%20SEEN.pdf

Recomendaciones nutricionales basadas en la evidencia para la prevención y el tratamiento del sobrepeso y la obesidad en adultos (Consenso FESNAD-SEEDO)
http://www.seedo.es/images/site/documentacionConsenso/Documento-Consenso-FESNAD-SEEDO-Oct2011.pdf

Consenso SEEDO 2007 para el Estudio de la evaluación de la obesidad y el sobrepeso y el establecimiento de criterios de intervención terapéutica
http://www.seedo.es/images/site/documentacionConsenso/Consenso_SEEDO_2007.pdf
Javier Aranceta y cols. *Prevalencia de la obesidad en España: estudio SEEDO'97*
http://www.elsevier.es/es-revista-medicina-clinica-2-articulo-prevalencia-obesidad-espana-estudio-seedox0002797-2563

María del Rocío Ortiz Montcada. *Modulo [9] Alimentación y nutrición*.
http://www.msssi.gob.es/organizacion/sns/planCalidadSNS/pdf/equidad/10modulo_09.pdf

OMS, 2016. *Obesidad y sobrepeso* Nota descriptiva N°311
http://www.who.int/mediacentre/factsheets/fs311/es/

OMS, *Estrategia mundial sobre régimen alimentario, actividad física y salud*
http://www.who.int/dietphysicalactivity/es/
http://www.who.int/nutrition/topics/en/
OMS, *Metas globales para el 2015*
http://www.who.int/nutrition/global-target-2025/es/
